Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

**LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN TRATAMENDU ERAGILEAREN MODUAN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO KONPROMISO**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan, Lanbideren izena emanda dauden enplegu- eta zerbitzu-eskatzaileei oro har ematen zaizkien enplegurako orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko (II. Kapitulua) 2026-2027-ko dirulaguntzen deialdia argitaratzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Zuzendari Nagusiaren 2026ko martxoaren 16ko Ebazpenaren 26. artikuluan adierazitakoaren arabera, Konpromiso honen erakunde sinatzaileak Lanbideren titulartasuneko datuen TRATAMENDUAREN ARDURADUNA izateko baldintza eskuratzen du berehala, eta ondorioz, honako konpromiso hauek hartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko EB2016/679 Erregelamenduaren, Datuak Babesteko erregelamendu orokorraren, eta Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera:

**1. Xedea**

Honen bidez, erakundeak onartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari zerbitzu berariazkoa ematen laguntzeko baino ez dituela

**COMPROMISO EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE DATOS COMO ENCARGADO DEL TRATAMIENTO DE LANBIDE – SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO**

En virtud de lo indicado en el art. 26 de la Resolución de 16 de marzo de 2026 del director general de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de subvenciones 2026-2027 para el desarrollo de acciones y servicios de orientación para el empleo dirigidas, con carácter general, a las personas demandantes de empleo y servicios inscritas en Lanbide (capítulo II) en colaboración con Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo, la entidad firmante del presente compromiso adquiere la condición de ENCARGADA DEL TRATAMIENTO de los datos titularidad de Lanbide y, en consecuencia, adquiere los siguientes compromisos en los términos del Reglamento UE 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, Reglamento general de protección de datos (en adelante, RGPD), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, LOPDGDD), tal y como se expone en las siguientes cláusulas:

**1.– Finalidad.**

La entidad acepta y asume por la presente que el tratamiento de los datos se produce a los **fines exclusivos** de colaborar con Lanbide-Servicio

eskuratuko datuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko Lanbideren izena emanda dauden enplegu- eta zerbitzu-eskatzaileei oro har ematen zaizkien enplegurako orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko, goian aipatutako 2026ko martxoaren 16ko Ebazpenean zehaztutako baldintzen arabera, eta ezingo dituela beste ezein xedetarako aplikatu edo erabili.

Erakundeak lehen deskribatutako helburuak gauzatzeko eskuratu ditzakeen datu pertsonalak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren titulartasunekoak dira, hori baita tratamenduaren arduraduna.

## 2.- Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Tratamendua gauzatuko duen erakundeak datu pertsonal horiek tratatuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako jarraibideen arabera, eta behar diren bermeak emango ditu neurri tekniko eta eratzaile egokiak aplikatzeko, tratamendua Estatuko eta Europako betekizunen araberakoa izan dadin, betiere interesdunen eskubideen babesa bermatuz.

Público Vasco de Empleo para el desarrollo de acciones y servicios de orientación para el empleo dirigidas, con carácter general, a las personas demandantes de empleo y servicios inscritas en Lanbide en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los términos explicitados en el artículo 26 de la resolución de 16 de marzo de 2026 arriba mencionada, no pudiendo ser aplicados ni utilizados para otros fines.

Los datos personales a los que la entidad tenga acceso para el ejercicio de las finalidades anteriormente descritas son titularidad de Lanbide – Servicio Público Vasco de Empleo como responsable del tratamiento.

## 2.– Obligaciones del encargado del tratamiento.

La entidad encargada del tratamiento tratará los datos de carácter personal conforme a las instrucciones establecidas por Lanbide - Servicio Público Vasco de Empleo, prestando las garantías necesarias para aplicar las medidas técnicas y organizativas adecuadas a los efectos de que el tratamiento sea conforme con las exigencias legales y garantizando en todo caso la protección de los derechos de las personas interesadas.

Tratamendu-eragile den entitateak konpromisoa hartzen du DPBEDBLOn eta DBEOn jasotako datu pertsonalen segurtasunari buruzko betebeharrak betetzeko, bereziki 32. artikulutik 36.era bitartekoetan jasotakoak.

Tratamendu-eragileak eta haren langile guztiek betebehar hauek hartzen dituzte beren gain:

Tratatzen dituzten datu pertsonalak, edo sartzeko biltzen dituztenak, **enkargu honen xederako soilik erabiltzea. Inolaz ere ezingo dira erabili xede propioetarako.**

Datuak tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatzea.

Idatziz jasotzea tratamendu-jardueren erregistro bat, arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztiak biltzen dituena, eta DBEOren 30. artikuluan ezarritakoa barne hartuko duena.

Kontratu honen xede den edozein prestazio ez azpikontratatzea, datu pertsonalen tratamendua baldin badakarte, salbu eta tratamendu-eragilearen zerbitzuen ohiko funtzionamendurako behar diren zerbitzu osagarriak.

a) Enkargu honen bidez eskuratutako datu pertsonalei buruz sekretua gordetzeko eginbeharra betetzea, bai eta xedea amaitu ondoren ere.

La entidad encargada del tratamiento se compromete a cumplir las obligaciones relativas a la seguridad de los datos personales contenidas en la LOPDGDD y en el RGPD, especialmente las recogidas en sus artículos 32 a 36.

El encargado del tratamiento y todo su personal se obliga a:

Utilizar los datos personales objeto de tratamiento, o los que recoja durante la ejecución del encargo, **sólo para la finalidad objeto de este encargo. En ningún caso podrá utilizar los datos para fines propios.**

Tratar los datos de acuerdo con las instrucciones del responsable del tratamiento.

Llevar, por escrito, un Registro de Actividades de Tratamiento donde se recojan todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta del responsable, y que contenga lo establecido en el artículo 30 RGPD.

No subcontratar ninguna de las acciones y servicios que formen parte del objeto de este encargo que comporten el tratamiento de datos personales, salvo aquellos que sean auxiliares y necesarios para el normal funcionamiento de los servicios del encargado.

a) Mantener el deber de secreto respecto a los datos de carácter personal a los que haya tenido acceso en virtud del presente encargo, incluso después de que finalice su objeto.

b) Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsona guztiek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurriak betetzeko. Horretarako, neurri horien berri eman beharko zaie, era egokian.

b) Garantizar que las personas autorizadas para tratar datos personales se comprometan, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad y a cumplir las medidas de seguridad correspondientes, de las que hay que informarles convenientemente.

c) Arduradunaren eskura izatea aurreko apartatuan ezarritako eginbeharra betetzen dela egiaztatzen duten agiriak.

c) Mantener a disposición del responsable la documentación acreditativa del cumplimiento de la obligación establecida en el apartado anterior.

d) Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek badutela datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza.

d) Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas para tratar datos personales.

e) Tratamenduaren arduradunari laguntzea eskubide hauen erabilerari erantzuten: datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, aurka egitea, tratamendua mugatzea, datuak eramatea eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izatea (profilak egitea barne hartuta). Tratamenduak eragindako pertsonek beren eskubideak baliatzean aurkeztutako eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari helaraziko zaizkio, hark ebatz ditzan.

e) Asistir al responsable del tratamiento en la respuesta al ejercicio de los derechos de: acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento, portabilidad de datos y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas (incluida la elaboración de perfiles). Las solicitudes que presenten en el ejercicio de sus derechos las personas afectadas por el tratamiento, se trasladarán a Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo para su resolución.

f) Tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe, eta nolanahi ere 72 orduko gehieneko epea igaro aurretik, ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, halakoren baten berririk badu, segurtasun-gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztiarekin batera.

f) Notificar al responsable del tratamiento, sin dilación indebida, y en cualquier caso antes del plazo máximo de 72 horas, las violaciones de la seguridad de los datos personales a su cargo de las que tenga conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia.

g) Datuen segurtasunaren urraketak lehenbailehen komunikatzea interesdunei, urraketak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak arrisku handian jartzea eragin badezake.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari laguntzea datuak babesteari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiten eta kontrol-agintaritzari aldez aurreko kontsultak egiten, hala badagokio.

i) Segurtasun-neurri egokiak ezartzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ardurapean dauden datuak eta lehen estipulazioan adierazitako jardueretarako eskuratu behar dituenak baimenik gabe erabiltzea eragozteko. Nolanahi ere, helburu hauek lortzeko tresnak ezarri beharko dira:

(i) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.
(ii) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea
(iii) Aldian-aldian egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolatzaileen eraginkortasuna.
(iv) Datu pertsonalak izenordetzea eta zifratzea.

j) Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea, legezko betebeharra izanez gero, eta haren

g) Comunicar en el menor tiempo posible las violaciones de la seguridad de los datos a los interesados, cuando sea probable que la violación suponga un alto riesgo para los derechos y las libertades de las personas físicas.

h) Dar apoyo a Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo en la realización de las evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos y en la realización de las consultas previas a la autoridad de control, cuando proceda

i) Implantar las medidas de seguridad adecuadas que impidan un uso no autorizado de los datos de los que es responsable Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo y a los que necesite acceder para la ejecución de las actividades indicadas en la estipulación primera. En todo caso, se deberán implantar mecanismos para:

(i) Garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
(ii) Restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.
(iii) Verificar, evaluar y valorar, de forma regular, la eficacia de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar la seguridad del tratamiento.
(iv) Seudonimizar y cifrar los datos personales.

j) Designar un delegado de protección de datos en caso de tener obligación legal de hacerlo y

identitatea eta harremanetarako datuak arduradunari jakinaraztea.

k) Arduradunaren eskura jartzea eginbeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta arduradunak berak edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak baimendutako beste auditore batek auditoriak edo ikuskapenak egiteko behar dena ere.

l) Erakundeak konpromisoa hartzen du bere instalazioetan eskuragarri izateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bien arteko harreman juridikoak iraun bitartean emandako datuak; suntsitu egin beharko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari itzuli behar ez zaizkion edo gorde behar ez diren euskarri guztiak.

**3.- Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak**

Enkargu honen xedea betetzearen ondoriozko enplegurako orientazio-ekintzak eta orientazio-zerbitzuak gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, tratamenduaren arduradunak, konpromiso honen lehen atalean zehaztutako jarduera gauzatzeko behar den informazioa jartzen du tratamenduaren erakunde arduradunaren esku.

Datu pertsonalen kategoria hauek jarriko dira tratamendu-eragilearen esku:

- Identifikazio-datuak
- Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak
- Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak
- Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak

comunicar su identidad y datos de contacto al responsable.

k) Poner a disposición del responsable toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de sus obligaciones, así como para la realización de las auditorías o las inspecciones que realicen el responsable u otro auditor autorizado por Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.

l) La entidad se compromete a mantener disponibles en sus instalaciones los datos facilitados por Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo durante todo el tiempo de vigencia de la relación jurídica mantenida entre ambos, debiendo destruir todos aquellos soportes que no tenga obligación de conservar o devolver a Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.

**3.- Obligaciones del responsable del tratamiento.**

Para la ejecución de las acciones y servicios de orientación para el empleo derivadas del cumplimiento del objeto de este encargo, Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo, responsable del tratamiento, pone a disposición de la entidad encargada del tratamiento la información necesaria para llevar a cabo la actividad definida en el apartado primero del presente compromiso.

Las categorías de datos personales que se pondrán a disposición del encargado del tratamiento son:

- Datos de carácter identificativo
- Datos de características personales
- Datos de circunstancias sociales
- Datos académicos-profesionales

- Enpleguari buruzko datu zehatzak
- Transakzioei buruzko datuak
- Bereziki babestutako datuak: osasuna, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima, arraza, gizarte-bazterketa.

Datu horien interesdun titularren kategoriak dira Lanbiden inskribatutako enplegu-eskatzaileak edo enplegu aurreko zerbitzuen eskatzaileak, baita Lanbiden erregistratutako eta lan-merkatuan sarbiderik ez dutenak ere; horiek denek honako baldintza hauetako bat bete beharko lukete gutxienez:

Tratamenduaren arduradunari dagokio:

a) Tratamendu-eragileari entregatzea dokumentu honen 3. estipulazioan adierazitako datuak. Horretarako, tratamendu-eragileari sarbidea emango dio orientazioko aplikazioa erabiltzeko, 4. estipulazioan adierazitakoaren arabera
b) Tratamendu-eragileak egin beharreko tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesari ekar diezaioketen arriskuaren analisia edo inpaktuaren ebaluazioa egitea.
c) Dagozkion aldez aurreko kontsultak egitea.
d) Tratamenduaren eragileak DBEO eta DBLO betetzen dituela zaintzea, aldez aurretik eta tratamendu osoan.

- Datos de detalles de empleo
- Datos de transacciones
- Categorías especiales de datos: salud, víctima de violencia de género/terrorismo, raza, exclusión social.

Las categorías de interesados titulares de estos datos son personas inscritas en Lanbide como demandantes de empleo o como demandantes de servicios previos al empleo, incluyéndose también las personas sin acceso al mercado nacional de trabajo, registradas en Lanbide.

Corresponde al responsable del tratamiento:

a) Entregar al encargado los datos a los que se refiere la presente estipulación 3ª de este documento. Dicha entrega se realizará permitiendo al encargado el acceso a la aplicación de orientación tal y como se establece en la estipulación 4ª.
b) Realizar un análisis de riesgo o una evaluación del impacto relativa a la protección de datos personales de las operaciones de tratamiento a realizar por el encargado.
c) Realizar las consultas previas que corresponda.
d) Velar, de forma previa y durante todo el tratamiento, por el cumplimiento del RGPD y la LOPD-GDD por parte del encargado del tratamiento.

e) Tratamendua ikuskatzea, ikuskapenak eta auditoriak egitea barne hartuta. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzaile izendatzen den erakundeak oniritzia ematen du Lanbideren organo ikuskatzaileak ados ditzakeen kontrol- eta ikuskapen-jarduera guztiak egiteko, lagatako informazioa behar bezala lortzen eta erabiltzen dela egiaztatu eta aplikagarri diren arau-baldintzak betetze aldera.

e) Supervisar el tratamiento, incluida la realización de inspecciones y auditorías. La entidad que obtenga la condición de encargada del tratamiento de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo acepta someterse a todas las actuaciones de control y supervisión que puedan acordarse por el correspondiente órgano auditor de Lanbide, al objeto de verificar la adecuada obtención y utilización de la información cedida y del cumplimiento de las condiciones normativas que resulten de aplicación.

**4.- Datuen tratamendua Lanbideren euskarrietan**

Enkargu hau betetzeko, tratamendu-eragileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren orientazioko aplikaziorako sarbidea izango du. Aplikazio hori izango da datuetarako sarbidea. Tratamendu-eragileak aplikazio horretatik datuak deskargatu, kopiatu edo nolabait atera baditu, eta enkargua amaitu ostean datu horiek gordeta badauzka, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, DBEOn ezarritakoari jarraituz.

Aplikazioan sartu eta hura erabiltzeari dagokionez, tratamendu-eragileak betebehar hauek ditu:

a) Orientazioko aplikazioaren erabiltzaileen zerrenda eguneratua izatea. Tratamendu-eragileak izendatutako eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak baimendutako pertsonek bakarrik izango dute sarbidea. Lanbidek baimendutako pertsonaren batek

**4.- Tratamiento de datos en soportes de Lanbide.**

Para la realización del presente encargo, el encargado del tratamiento tendrá acceso a la aplicación de orientación de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo. El acceso a los datos se realizará a través de dicha aplicación. En caso de que el encargado del tratamiento descargue, copie o de algún modo extraiga los datos fuera de dicha aplicación y los conserve una vez terminado el encargo, será considerado responsable del tratamiento en virtud de lo dispuesto en el RGPD.

Con relación al acceso y uso de esta aplicación, el encargado del tratamiento tiene las siguientes obligaciones:

a) Disponer de una relación actualizada de usuarios de la aplicación de orientación. Solo podrán acceder aquellas personas designadas por el encargado y autorizadas por Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo. En caso de que alguna de las personas autorizadas por

tratamendu-eragilearentzat lan egiteari uzten badio, Lanbideri jakinarazi beharko zaio, erabiltzaile horri baja eman diezaion.

b) Enplegurako orientazioko ekintzen eta zerbitzuen ardura duten guztiei jakinaraztea zer konpromiso hartzen duten, hau da, orientazioko aplikazioa helburu horietarako soilik erabiltzekoa, eta, halaber, jakinaraztea zer erantzukizun onartzen dituzten datuen konfidentzialtasunari buruz. Horiek sekretu profesionalaren menpe izan beharko dituzte eta gorde egin beharko dituzte. Betebehar horiek iraun egingo dute erakunde laguntzailearekin izandako harreman juridikoa amaitu ondoren ere. Ondore horietarako, baimenduek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren segurtasun-araudia onartzeko konpromisoa sinatu beharko dute.

c) Erabiltzaile bakoitzari esleitutako identifikazio-datu eta sarbide-gakoak pertsonalak eta besteren ezinak dira, eta erabiltzailea izango da haiek gaizki erabiltzeak, zabaltzeak edo galtzeak eragin ditzakeen ondorioen erantzule bakarra. Galarazita dago aplikazioan norberarena ez den erabiltzaile-identifikazio batekin sartzea, bai eta inori pasahitz eta guzti komunikatzea edo lagatzea.

Lanbide deje de trabajar para el encargado del tratamiento, se deberá comunicar tal circunstancia a Lanbide para que proceda a dar de baja a dicha persona usuaria.

b) Informar a todas las personas encargadas de las acciones y servicios de orientación para el empleo del compromiso que adquieren de utilizar la aplicación de orientación de Lanbide a los fines exclusivos para los que se ha obtenido el acceso a la misma, así como de las responsabilidades que asumen sobre la confidencialidad de los datos, quedando obligadas al secreto profesional respecto de los mismos y al deber de guardarlos, obligaciones que subsistirán incluso una vez finalizada la relación jurídica mantenida con la entidad colaboradora. A estos efectos, las personas autorizadas habrán de firmar el compromiso de aceptación de la normativa de seguridad de Lanbide-Servicio Vasco Público de Empleo.

c) Los datos de identificación y claves de acceso asignadas a cada usuario/a son personales e intransferibles, siendo la persona usuaria la única responsable de las consecuencias que puedan derivarse del mal uso, divulgación o pérdida de los mismos. No se permite el acceso a la aplicación con un identificador de usuario que no sea el propio, así como comunicarlo o cederlo con su contraseña a cualquier otra persona.

d) Pasahitza gako sekretu bat izango da, erabiltzaile-identifikatzailearen jabeak soilik jakingo duena, eta haren identitatea egiaztatzeko aukera emango du. Berariaz debekatuta dago norberaren pasahitza jakitera ematea. Horren haritik, erabiltzaile bakoitzak erantzukizun hauek izango ditu:
   i) Pasahitza zaintzea, sekretuan gordetzea, eta idatzita ez uztea beste erabiltzaile batzuek edo kanpoko pertsonek ikusteko moduko tokian.
   ii) Beste erabiltzaileei eragoztea pasahitz horren erabilera.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren aplikazioan dagoen informazio guztia Lanbideren jabetzakoa da, eta konfidentziala da. Erabiltzaile bakoitzari bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak dituen datu eta baliabideetarako sarbidea baino ez zaio baimenduko.

d) La contraseña será una clave secreta, conocida únicamente por la persona propietaria del identificador de usuario, que permitirá verificar la identidad del mismo. Está expresamente prohibido divulgar la propia contraseña. En este sentido, cada usuario/a será responsable de:
   i) Custodiar su contraseña, manteniéndola en secreto y no dejándola por escrito donde pueda ser vista por otros usuarios o por personal ajeno.
   ii) Impedir que otros usuarios la utilicen.

e) Toda la información albergada en dicha aplicación de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo, es propiedad de Lanbide y tiene el carácter de confidencial. Las personas usuarias tendrán acceso autorizado únicamente a aquellos datos y recursos que precisen para el desarrollo de sus funciones.

**5.- Datuak babesteko araudia betetzea**

Honen bidez, bi alderdiak datuen babesaren arloko araudiaren mende jartzen dira (DBEO eta DPBEDBLO). Araudi hori ebazpenari aplika dakiokeen araubide juridikoa da, eta nahitaez bete behar dute bi alderdiak. Beraz, biek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudian xedatzen diren betebehar eta estipulazio guztiak.

**5.- Sometimiento a la normativa de Protección de Datos**

Por la presente, las partes se someten a la normativa en materia de protección de datos (RGPD y LOPDGDD). Esta normativa constituye régimen jurídico aplicable a la resolución principal y es de obligatorio cumplimiento para ambas partes. Por tanto, ambas deben respetar y cumplir cuantas obligaciones y estipulaciones se dispongan en la normativa de protección de datos.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, bi alderdiek nahitaez bete beharko dituzte konpromiso honetan eta ebazpen nagusian datuak babesteko ezarritako betebehar eta xedapen guztiak.

Sin perjuicio de lo anterior, también son de cumplimiento obligatorio para ambas partes todas las obligaciones y estipulaciones en materia de protección de datos dispuestas en el presente Compromiso, así como en la resolución principal.

**6.- Konpromisoak ez betetzea**

Erakunde laguntzaileak adierazten du jakinaren gainean dagoela eta onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela erakunde laguntzailearen izendapena, baldin eta ikusten badu ez dela bete dokumentu honen bidez hartutako konpromisoetako edozein edo ez dela gauzatu auditoria-jarduerarako beharrezko lankidetza.

Hartutako konpromisoak betetzen ez badira, baimendu gabeko erabiltzaileek informazioa bidegabeki eskuratzen badute, agindutako funtziorako beharrezkoak ez diren prozesuak edo transakzioak egiten badira edota lortutako informazioa zaintzapean edo isilpean gordetzen ez bada, edozein motatako erantzukizunak eskatuko dira, erantzukizun penala barne, eta, zehazki, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. Tituluan adierazten direnak.

**6.- Incumplimiento de compromisos.**

La entidad firmante declara conocer y acepta expresamente que Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo podrá, en cualquier momento y de forma unilateral, revocar los derechos adquiridos mediante la resolución de la que trae causa este compromiso, si advirtiera que se ha incumplido cualquiera de los compromisos adquiridos en este documento o no se produjera la necesaria colaboración para la actividad auditora por parte de la entidad colaboradora.

El incumplimiento de los compromisos adquiridos, el acceso indebido a la información por usuarios/as no autorizados/as, la asignación de procesos o transacciones no necesarios para la función encomendada, así como la falta de custodia o secreto de la información obtenida, darán lugar a la exigencia de responsabilidades de cualquier índole, incluida la responsabilidad penal, y en concreto las establecidas en el Título IX de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

**7.- Iraupena**

Konpromiso hau indarrean egongo da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren erakunde laguntzaile izendapenari eusten zaion artean.

**7- Duración.**

El presente compromiso se mantendrá mientras se siga manteniendo la relación jurídica con Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.

…………………………..(e)n, 20……(e)ko ...................aren .......(e)(a)n.

En …………………………, a …. de ………………… de 20……

Legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren sinadura

Firma del representante legal o persona autorizada